



UDALBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Josu Artetxe Arana jn.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

**AIARAKO UDALAK 2018ko AZAROAREN 29an
EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita bederatzian, hemeretziak eta bost direnean, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko urriaren 18an eginiko osoko bilkuraren saioaren akta.- Ez du inork hitz egin, eta, beraz, akta hori aho batez onartu da.

2.- Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirolinstalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzea.Jarraian, zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzearen inguruko erabakiproposamenaren berri eman zaio Udalbatzari, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria informazio-batzordeak 2018ko uztailearen 10ean egindako bilkuran aldeko txostena egindakoa; honela dio:

"Udalbatzak 2018ko uztailearen 18an egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion **Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirolinstalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzeko** akordioaren proposamenari dagokionean, bi akats topatu dira bertan eta ezinbestekoa da hauek zuzentzea.

Udalbatzak zuzenketarako honako ERABAKI hau hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirolinstalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen honako aldaketa hau hasiera batean onestea:

1.- Ordenantzaren II. eranskina aldatzea, honela zegoena idatzita:

II. ERANSKINA

KULTURA ETA KIROL SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA TAILERRAK EMATEAGATIKO ZERBITZUAREN TASA.

TARIFA:

1.- Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

- Ikastaroak emateagatik (musika-diziplinak kenduta): 1,5 euro/ordu.
- Aiarako Trikitixa Eskola:
 - a) Matrikula musika-diziplinako: 100 euro/hil.
 - b) Bi pertsonak partekatutako trikitixa-instrumentuaren eskola ematea: 35,00 euro/hil.
 - c) Pandero-eskola partekatua ematea. 4-6 ikasleko taldeak, instrumentuka eta/edo adinka eta/edo ikaskuntza-mailaren arabera banatuak: 20 euro/hil.

2.- Tasa sortuko da, osorik, Udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.

Musika-diziplinen kasuan, hil bakoitzaren hasieran egin beharko da ordainketa, bankuhelbideratzearen bidez.

3.- Tasaren ondoriozko zenbatekoa erabiltzaileek (edo haien gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu-zenbakian helbideratuta ordainduko da. Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik ikastaroa hasi ondoren.

4.- Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira dagoeneko hasita dagoen edozein tailerretan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira tailer horretan.

HOBARIAK:

1.- Hobari bat emango zaie, aurreko ataleko lehenbiziko puntuan aipatzen diren tasetan, langabezian dauden pertsonen edo ikasle txartela daukatenei.

Langabezia txartela edo ikasle txartela aurkeztu beharko da matrikula egiteko unean.

Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:

- Ikastaroak emateagatik: 1,2 euro/ordu.

EZ ORDAINTZEA:

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.”

Proposamenaren aldaketaren ondoren, Ordenantza honela erredaktatuta geratuko litzateke:

"II. ERANSKINA

KULTURA ETA KIROL ARLOAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA LANTEGIAK EMATEKO ZERBITZUAREN TASA

TARIFA:

1.- Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

- Ikastaroak emateagatik (musika-diziplinak kenduta): 1,5 euro/ordu.
- Aiarako Trikitixa Eskola:

a) Matrikula

- Trikitixa: 100 euro/kurtsu
- Panderoa: 50 euro/kurtsu

b) Bi pertsonak partekatutako trikitixa-instrumentuaren eskola ematea: 35,00 euro/hil. c) Pandero-eskola partekatua ematea. 4-6 ikasleko taldeak, instrumentuka eta/edo adinka eta/edo ikaskuntza-mailaren arabera banatuak: 20 euro/hil.

2.- Tasak sortuko da, osorik, Udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.

Musika-diziplinen kasuan, hil bakoitzaren hasieran egin beharko da ordainketa, bankuhelbideratzearen bidez.

3.- Tasaren ondoriozko zenbatekoa erabiltzaileek (edo haren gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu zenbakian helbideraturik ordainduko da.

Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik behin ikastaroa hasi ondoren.

4.- Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira dagoeneko hasitako edozein lantegitan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira lantegi horretan.

HOBARIAK:

1.- Hobari bat emango zaie, aurreko ataleko lehenbiziko puntuan aipatzen diren tasetan, langabezian dauden pertsonen edo ikasle txartela daukatenei.

Langabezia txartela edo ikasle txartela aurkeztu beharko da matrikula egiteko unean.

Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:

- Ikastaroak ematearren: 1,2 euro/ordu.

EZ ORDAINTZEA:

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.”

AZKEN XEDAPENA:

II. eranskin hau, zeinak Kultur eta kirol arloak antolatutako ikastaro eta lantegiak emateko zerbitzuaren tasa arautzen baititu, argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldatu edo indargabetzea onartzen den arte."

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea 30 egun balioduneko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, edozen interesdunek egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ahalko ditu, eta osoko bilkurak aztertuko ditu behin betiko onartzean. Hasierako onarpenari ez bazaio alegaziorik aurkezten, behin betikotzat joko da hasiera batean onetsitako erabakia, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa horiek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bilkurara bertaratutako zinegotzi jaun/andreek aho batez adostu dute erabaki hau hartzea:

Lehenengoa.- Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirolinstalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzeari hasierako onarpena ematea, jasota dagoen erabaki-proposamenean planteatutako moduan.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, eta osoko bilkurak aztertuko ditu behin betiko onartzean. Hasierako onarpenari ez bazaio alegaziorik aurkezten, behin betikotzat joko da hasiera batean onetsitako erabakia, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa horiek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean".

3º.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2018).- Jarraian, 2018. urterako Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzaren berri eman zaio Udalbatzari. 2018ko azaroaren 20an eginiko bilkuran, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak aldeko txostena egin du, eta honako hau dio:

"AIARAKO UDALAREN ETA "ESKUTXIKO AHOTSAK" ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2018. URTERAKO.

Arespalditzan, 2018ko xxxxxren xx(a)n.

HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik , Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, ekitaldi honen fede ematen duen . Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta.

Beste aldetik, adin nagusikoa, NAN zenbakiaren titularra eta helbideratua.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, toki-erakundearen ordezkaria, gaian gaitua eta trebea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena, "ESKUTXIKO AHOTSAK" Elkartearen izenean eta bere ordezkarietan, G-01272798 IFK zenbakiarekin, bere nortasunak eta ordezkagarritasunak frogatzen du elkartek berak

egindako ziurtagiriaren bitartez, Udalean “ESKUTXIKO AHOTSAK” elkarteko Presidente aukeratu eta izendatzen duten aktaren kopia bat aurkeztuz (hitzarmen honi 1. dokumentu bezala atxikiko zaio).

Bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri.

AZALTZEN DUTE

I.- Aiarako Udalak musika sustatzeko eta eremu guztietan erabiltzeko herri interes publikoari jarraikiz, honako ekimen hauek gauzatuko ditu:

- Aisialdian, kultur eskaintzan, jai herrikoietan eta bestelako azoketan erabiltzeko aukerak sortzea.
- Musika-kultura sustatzeko jarduera eta kanpainak antolatzea.
- Beharrezkoak ikusten diren beste ekimen batzuk.

II.- Aiarako Udalak udalerrian musika kultura sustatzeko jardunean, beste ekimen batzuen artean, hitzarmen honen bidez lan egingo du. “ESKUTXIKO AHOTSAK” Elkarteari bere urteko ekintzen programarako eta beren funtzionamendu gastuetarako ematen zaion urteko diru-laguntza arautzen du hitzarmenak.

III.- “ESKUTXIKO AHOTSAK” Elkarteak Aiarako biztanleei zein udalerriko beste elkarte batzuei irekita dago, musika sustatu eta honen gizarte-erabilera dituela xede.

IV.- “ESKUTXIKO AHOTSAK”, bere sorreratik, interes handia erakutsi du jarduera ezberdinen antolakuntzan Aiarako Udalarekin lankidetzan aritzeko.

V.- Aplikazio-legedia zorrotz betez eta toki-erakundeei dagokien Lankidetzeta Hitzarmenetan izen emateko aukeran erreparatuz, Lankidetzeta Hitzarmena formalizatu dute.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea, Aiarako Udalaren aldetik, musika sustatzeko ekintza eta ekimen ezberdinak bultzatzea da “ESKUTXIKO AHOTSAK” Elkartearekin lankidetzan. “ESKUTXIKO AHOTSAK” urtero doako zenbait kontzertu antolatzen ditu Aiarako herritarrentzat:

1.- Gabonak.

2.- Santa Zezilia.

3.- San Vítor.

4.- San Prudentzio.

5.- Berdintasunaren aldeko kontzertua, Aialako Emakumeen Jardunaldien barnean edo Udalak honen inguruan egokia deritzon beste jarduera baten barnean.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak “ESKUTXIKO AHOTSAK” elkartearen funtzionamendurako gastuen eta urteko ekintzen gastuen diru-laguntzak ematea du sustapenerako bere jarduna, hitzarmen honetan zehaztutakoarekin bat.

HIRUGARRENA.- 2018ko ekintzen sustapenerako Administrazio honek emango duen laguntza BI MILA EURO (2.000,00 EURO) izango da, eta elkartearen urteko programaren gaustuak abonatu eta koruko zuzendariaren gaustuak ordaintzeko izango da.

Diru-laguntza hau bateragarria da Udalak ematen dituen beste laguntza batzuekin, kultur eta kirol taldeei urtero ematen zaizkien laguntzak arautzeko oinarri eta ordenantzekin bat. Hori horrela izanik ere, diru-laguntza hau elkartearen diru-sartze gehigarri bat bezala hartuko da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen xede diren ekintzen gauzatze epea 2018. urtera mugatuko dira.

BOSGARRENA.- Diru-laguntza honen ordainketa modua honakoa izango da: Aiarako Udalak diru-laguntzaren % 90 abonatu du hitzarmena sinatu ondoren. Beste % 10 berriz, behin diru-laguntza eskatu zen urteko ekonomia-memoria aurkeztu ondoren.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du beharrezkoa deritzon honen inguruko informazioa.

"ESKUTXIKO AHOTSAK" erakundeak Aiarako Udalak laguntza eta babes moduan gauzatutako publizitate oro jaso beharko du.

SEIGARRENA.- Udalaren urteko diru-laguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Diruz lagundutako jardueren finantzaketarako erakunde publiko zein pribatutatik eskuratutako diru-laguntza guztien aitortzea.*
- b) Foru Ogasuneta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela adierazten duen egiaztagiria, eta hori ez izatekotan, informazio hori Udalak berak eskatu ahal izateko gaitasuna dagokien erakundeei.*
- c) Jarduerari dagokion dokumentazioa:*
 - Amaitutako urteko memoria-ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sartzeekin, dagozkion faktura eta ordainketa dokumentuak gehituz. Udalak emandako beste diru-laguntzak ere aitortu beharko dira (AFAREN diru-laguntza, eta besteak, gehiago egotekotan).*
 - Diruz lagundutako Jardueren Memoria (gauzatutako ekintza bakoitzaren ebaluazio txostena eta gauzatu izanaren zinpeko aitormena).*
 - Gastu guztien justifikazio dokumentuak:*

Koruko zuzendariaren kontratazio gastuak: Behar bezala igorritako fakturen kopia, Foru Ogasunean egindako atxikipenak abonatu izanaren ziurtagiriakin.

ZAZPIGARRENA.- "ESKUTXIKO AHOTSAK" Hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak ez betetzekotan, indarrean dagoen diru-laguntzen arautegiko erantzunkizun eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Adostutakoarekin bat, bi aldeek sinatu dituzte lankidetzaren hitzarmen honen bi aleak, inolako dokumentua osatzen duten 4 folioetan zuzenketa, ezabaketa edo aldaketarik gabe, hitzarmena betetzeko konpromisoa hartuz, dokumentuko goiburuan agertzen den leku eta egunean.

*ALKATE-UDALBURUA.- Izpta: **ESKUTXI AHOTSAK**eko **PRESIDENTEA**.- Izpta: Nire aurrean, **IDAZKARIA**.-Izpta.: "*

*Ez da parte-hartzerik egon, honenbestez, ohiko bozketaren bitartez, aho batez **ERABAKI DA:***

1) Aiarako Udalaren eta "Eskutxiko Ahotsak" Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2018. urterako.

2) Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

4º.- Aiarako Udala eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2018).- Jarraian, 2018. urterako Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren berri eman zaio Udalbatzari. 2018ko azaroaren 20an eginiko bilkuran, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak aldeko txostena egin du, eta honako hau dio:

"AIARAKO UDALA ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2018).

Arespalditzan, 2018ko xxxxxxren xx(a)n.

HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik , Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, ekitaldi honen fede ematen duen . Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta.

Beste aldetik, adin nagusikoa, NAN zenbakiaren titularra eta helbideratua, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteko presidentea.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, toki-erakundeko ordezkaria, gaian gaitua eta trebea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena, aipaturiko Elkartearen izenean eta bere ordezkartzan, bere nortasunak eta ordezkagarritasunak frogatzen du elkartek berak egindako ziurtagiriaren bitartez, Udalean "IGE Etxaurren" elkarteko Presidente aukeratu eta izendatzen duten aktaren kopia bat aurkeztuz (hitzarmen honi 1. dokumentu bezala atxikiko zaio).

Bi aldeek lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri.

AZALDU DUTE

I.- Aiarako Udalak kirol eta kultur jarduerak zaindu eta sustatzeko herritarren interes publikoari erantzunez, hitzarmen honetan zehazten diren lankidetzaz eta baliabideak erraztuko dizkio IGeri, helburuak gauzatu ahal izateko.

II.- Udalak interes berezia du eskola ordutegitik kanpoko jardueren mantentze lanetarako eta sustapenerako.

III.- "IGE Etxaurren" izeneko elkarteak lan handia egiten du gizarte eta kirol arloari dagokionean, izan ere udalerrian kultur jarduera eta kirol ekintza ugari eskaintzen ditu, batez ere haurrei eskainita, kirol ekintzak eta artistikoak sustatuz gaztetxoenen artean, hezkuntza zentroko ekintzen osagarri.

IV.- "IGE Etxaurren" elkarteak beti adierazi du Aiarako udalarekin lan egiteko interesa gaztetxoenei zuzendutako kultur ekintza edo kirol ekintzak antolatzeke.

V.- Aiarako Udalak udalerriko txikitxoentzako kultur ekintzak eta kirol ekintzak sustatu ditu, eta horrez gain, hitzarmen honen bidez sustapen hori artikulatzea lortu du, Etxaurren Ikastolan eskolaz kanpoko ekintzen gastuak ordaintzeko diru-laguntza zuzenak arautzen dituelarik. Hauek 2018-2019 urterako hezkuntza-zentroko eskolaz kanpoko ekintzen egutegiaren arabera egingo dira.

VI.- Aplikazio-legedia zorrotz betez eta toki-erakundeei dagokien Lankidetzaz Hitzarmenetan izen emateko aukeran erreparatuz, Lankidetzaz Hitzarmena formalizatu dute.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea, Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako eskolaz kanpoko kultur eta kirol ekintzak sustatzea da, "IGE Etxaurren" elkartearen bitartez.

BIGARRENA.- Aiarako Udalarari dagokion sustapen jarduerak eskolaz kanpoko ekintzek suposatzen duten gastu batzuez (gasteuen zati batez) arduratzea eta hauei diru-laguntza ematean datza.

*Elkartearen esku geratuko da ekintzen garapenerako beharrezko materiala.
2018-2019 ikasturterako gehienezko diru-laguntza 2.200,00 EURO izango da.*

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzaren xede den jardueraren epea ikastetxeko egutegi ofizialaren arabera izango da eta 2019ko ekainean amaituko da; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinaraziko du Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bitartez.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza honen ordainketa modua honakoa izango da: Aiarako Udalak diru-laguntzaren % 90 abonatu du hitzarmena sinatu ondoren. Beste % 10 berriz, behin hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

BOSGARRENA.- Udalaren urteko diru-laguntzaren zenbatekoa (gehienez 2.200,00 euro) JUSTIFIKATZEKO honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantziatzeko erakunde publiko zein pribatutatik eskuratutako diru-laguntza guztien aitortzea.

b) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela adierazten duen egiaztagiria.

c) Diruz lagunduko den jarduerari dagokion dokumentazioa:

- Diruz lagunduko den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea*
- Diruz lagundutako jardueraren ekintzen memoria (gauzaturiko ekintza bakoitzaren ebaluzio orria eta gauzatu izanaren zinpeko aitortpena)*
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.*

Lehen akordioan adierazitako baldintzak ez betetzekotan ez da diru-laguntzarik emango eta aurrez abonatuak zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Hitzarmen honetako bosgarren akordioan adierazitako beharrezko justifikazio hori 2019ko irailaren 30erako ez aurkeztekotan, ez da diru-laguntzarik emango eta aurrez abonatuak zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Jarduera honetarako emango den diru-laguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deituriko gainerako diru-laguntzekin.

SEIGARRENA.- "IGE Etxaurren" Elkarteak Aiarako Udalak laguntza eta babes moduan gauzatutako publizitate oro jaso beharko du.

ZAZPIGARRENA.- "IGE Etxaurren" elkarteak hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak ez betetzekotan, indarrean dagoen diru-laguntzen arautegiko erantzunkizun eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Adostutakoarekin bat, bi aldeek sinatu dituzte lankidetzan hitzarmen honen bi aleak, inolako dokumentua osatzen duten 4 folioetan zuzenketa, ezabaketa edo aldaketarik gabe, hitzarmena betetzeko konpromisoa hartuz, dokumentuko goiburuan agertzen den leku eta egunean.

*ALKATE-UDALBURUA.- Izpta: "IGE ETXAURREN" ELKARTEKO PRESIDENTEA.-
Izpta:
Nire aurrean, IDAZKARIA.-Izpta.: "*

Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) hitza hartu du, eta adierazi du Informazio Batzordean IGE Etxaurren diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzearekin egin zen moduan, IGerekin hitz egin aurretik Batzordean eztabaidatu beharko litzatekeela gainerako Udal Taldeak zalantzan uztea ekiditeko, izan zezaketen iritzia dela eta. Horri dagokionean, gehitu du, Aiara Batuz taldeak hitz egin zuela. Amaitzeko, adierazten du aldaketa honek etorkizun batean elkarte gehiagoren eskaerak jasotzea eragin ahalko lukeela, eta prozedura egoki bat jarraitu behar dela aldaketa hauetarako.

Parte-hartzeak amaitu dira, eta aho batez, honako hau ERABAKI DA:

1) Aiarako Udalaren eta ETXAURREN Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onartzea 2018. urterako.

2) Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

5.- Aiarako Udala eta Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena (2018).- Jarraian, 2018. urterako Aiarako Udalaren eta Gurasoen Elkarte Babio-Asociación Padres y Madres Elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren berri eman zaio Udalbatzari. 2018ko azaroaren 20an eginiko bilkuran, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio Batzordeak aldeko txostena egin du.

Hitzarmena Elkarteak berak zuzenduriko testu bera da, aipaturiko Informazio Batzordean adierazi zen moduan, eta honela dio:

"AIARAKO UDALAK ETA GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2018).

Arespalditzan, 2018ko xxxxxxxxren xx(a)n

HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik , Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, ekitaldi honen fede ematen duen . Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta.

Beste aldetik, jn./and., adin nagusikoa, NAN zenbakiaren titularra eta helbideratua, "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" Elkartearen presidentea.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-udalburua, toki-erakundeko ordezkaria, gaian gaitua eta trebea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena, aipaturiko Elkartearen izenean eta bere ordezkaritza, bere nortasunak eta ordezkagarritasunak frogatzen du elkarte berak egindako ziurtagiriaren bitartez, Udalean "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkartearen Presidente aukeratu eta izendatzen duten aktaren kopia bat aurkeztuz (hitzarmen honi 1. dokumentu bezala atxikiko zaio).

Bi aldeek lankidetz hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri.

AZALDU DUTE

I.- Aiarako Udalak kirol jarduerak eta jarduera soziokulturalak zaindu eta sustatzeko herritarren interes publikoari erantzunez, hitzarmen honetan zehazten diren lankidetz eta baliabideak erraztuko dizkio GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES ELKARTEARI, helburuak gauzatu ahal izateko.

II.- Udalak interes berezia du eskola ordutegitik kanpoko jardueren mantentze lanetarako eta sustapenerako.

III.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" izeneko elkarteak lan handia egiten du arlo soziokulturalari eta kirolari dagokionean, izan ere udalerrian kultur jarduera eta kirol ekintza ugari eskaintzen ditu, batez ere haurrei eskainita, kirol ekintzak eta artistikoak sustatuz gaztetxoenen artean, hezkuntza zentroko ekintzen osagarri.

IV.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkarteak beti adierazi du Aiarako udalarekin lan egiteko interesa gaztetxoenei eta beren familiei zuzendutako ekintza soziokultural artistikoak edo bestelako kirol ekintzak antolatzeke.

V.- Aiarako Udalak udalerriko txikitxoentzako eta beren familientzako kultur eta kirol ekintzak sustatu ditu, eta horrez gain, hitzarmen honen bidez sustapen hori artikulatzea lortu du, Zараobe Institutuan eskolaz kanpoko ekintzen gastuak ordaintzeko diru-laguntza zuzenak arautzen dituelarik. Hauek 2018-2019 urterako hezkuntza-zentroko eskolaz kanpoko ekintzen egutegiaren arabera egingo dira.

VI.- Aplikazio-legedia zorrotz betez eta toki-erakundeei dagokien Lankidetz Hitzarmenetan izen emateko aukeran erreparatuz, Lankidetz Hitzarmena formalizatu dute.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea, Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako eskolaz kanpoko kultur eta kirol ekintzak sustatzea da, "GURASOEN ELKARTEA BABIO - ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkartearen bitartez.

BIGARRENA.- Aiarako Udalarik dagokion sustapen jarduerak eskolaz kanpoko ekintzek suposatzen duten gastu batzuez (gasteuen zati batez) arduratzea eta hauei diru-laguntza ematean datza.

*Elkartearen esku geratuko da ekintzen garapenerako beharrezko materiala.
2018-2019 ikasturterako gehieneko diru-laguntza 2.200,00 EURO izango da.*

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzaren xede den jardueraren epea ikastetxeko egutegi ofizialaren arabera izango da eta 2019ko ekainean amaituko da; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinaraziko du Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bitartez.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza honen ordainketa modua honakoa da: Aiarako Udalak diru-laguntzaren % 90 abonatu du hitzarmena sinatu ondoren. Beste % 10 berriz, behin hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren

BOSGARRENA.- Udalaren urteko diru-laguntzaren zenbatekoa (gehienez 2.200,00 euro) JUSTIFIKATZEKO honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantziatzeko erakunde publiko zein pribatutatik eskuratutako diru-laguntza guztien aitortzea.

b) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela adierazten duen egiaztagiria.

c) Diruz lagunduko den jarduerari dagokion dokumentazioa:

- Diruz lagunduko den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea*
- Diruz lagundutako jardueraren ekintzen memoria (gauzaturiko ekintza bakoitzaren ebaluzio orria eta gauzatu izanaren zinpeko aitortpena)*
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.*

Lehen akordioan adierazitako baldintzak ez betetzekotan ez da diru-laguntzarik emango eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Hitzarmen honetako bosgarren akordioan adierazitako beharrezko justifikazio hori 2019ko irailaren 30erako ez aurkeztekotan, ez da diru-laguntzarik emango, eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Jarduera honetarako emango den diru-laguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deituriko gainerako diru-laguntzekin.

SEIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" Elkarteak Aiarako Udalak laguntza eta babes moduan gauzatutako publizitate oro jaso beharko du.

ZAZPIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkarteak hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak ez betetzekotan, indarrean dagoen diru-laguntzen arautegiko erantzunkizun eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Adostutakoarekin bat, bi aldeek sinatu dituzte lankidetzaren hitzarmen honen bi aleak, inolako dokumentua osatzen duten 4 folioetan zuzenketa, ezabaketa edo aldaketarik gabe, hitzarmena betetzeko konpromisoa hartuz, dokumentuko goiburuan agertzen den leku eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA.- Izpta: " GURASOEN ELKARTEA BABIO- ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" ELKARTEKO PRESIDENTEA.- Izpta:

Nire aurrean, IDAZKARIA.-Izpta.: "

Udalbatza jankinaren gainean geratu da, eta aho batez, honako hau ERABAKI DA:

1) Aiarako Udalaren eta Babio Guraso Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2018. urterako.

2) Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

6º.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko 2018rako sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena luzatzea. Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko 2018rako Lankidetzaren Hitzarmena luzatzeko dokumentua igorri duela, 2018ko azaroaren 20an eginiko bilkuran, Gizarte eta Osasuna, berdintasuna eta inmigrazioa batzordeak aldeko txostena egin du.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

1º) Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko 2018rako sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren luzatzea onestea.

2º) Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

7.- Aiarako Udalaren ESEP 2018-22 Plan Estrategikoaren proposamena onestea. – Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalaren ESEP 2018-22 Plan Estrategikoa, 2018ko urriaren 9ko bilkuran Batzordearen irizpena eman eta elkarteei eta Administrazio batzarrei kopia bana bidaltzea erabaki zela, hauek ekarpenak egiteko. Aiarako Kuadrilako Euskara Teknikariaren arabera, ez da inolako ekarpenik jaso eta ondorioz, Plan Estrategikoa ez du aldaketarik izan; horrez gain, 2018ko azaroaren 20an eginiko bilkuran Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteak Informazio batzordeak aldeko txostena egin du.

Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) hitza hartu du, eta adierazi du neurrien artean, haintzat hartu beharko litzatekeela euskara ikasteko laguntzak % 100ekoak izatea. Planak egin eta hauek onartzea ongi dagoela gehitu du, baina euskararekiko jarrera ez dela espero bezalakoa eta euskararen doako ikasketaren alde egin beharko litzatekeela esan du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) azaldu du dagoeneko Parlamentuan eztabaida sortu eta neurriren bat hartu dela, gauzatu arte itxaron beharko den arren. Adierazi du Autonomia Erkidegoko legegintzak bide hori hartzekotan nola moldatzen den ikusi beharko dela, ez baita ahaztu behar baliabide mugatuak ditugula.

Parte hartzeak amaitu dira eta gehiengo osoz, ERABAKI DA Aiarako Udalaren euskara sustatzeko 2018-2022 Plan Estrategikoa onestea, eta honako hau dio:

"ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana)

**AIARAKO UDALAREN 2018-2022 PLAN ESTRATEGIKOA
(PROPOSAMENA) DENBORALDIA: 2018-2022**

SARRERA

Aiarako 2018-2022 ESEP Plan Estrategikoaren proposamena dokumentu orokor eta malgu da, Eusko Jaurlaritzak proposatutako metodologia eta ildoekin gauzatua, marko horren barnean kokatu ahal izateko Aiaran 2022 urtera arte euskara sustatzeko egindako ekimen guztiak. Informazio moduan, esparruka sailkatuta, Aiara udalerrian gauzatzen ari diren ekimen nagusiak agertzen dira. Plan estrategikoa onetsita, eta horretarako adostutako moduak erabiltzen, komenigarria izango litzateke urteroko balorazioa oinarri hartuz urteko plan hau garatzea.

EGOERA OROKORRA

Azken urteetan Aiaran euskararen ezagutza eta erabilerak gora egin du, besteren artean, eskolei, euskaltegiei, udalei eta gizarte-eragileei esker. Hala ere, Aiara eta Aiaraldeako ingurune soziolinguistikoan euskararen presentzia urria da. Bailarako euskaldun askok euskaraz komunikatzeko gaitasun mugatua dute. Orokorrean, euskara eskolarekin erlazionatzen da eta familian zein kalean ez da asko erabiltzen.

JOKABIDE ILDO NAGUSIAK

Argi dago hiztunak euskara erabili ahal izateko, eskola eta euskaltegiez gain, beste gune batzuk behar dituela bere hizkuntza erabiltzeko jarduera, gizarte harreman eta aisialdi egoeretan. Hortaz, ondorengo puntuek izango dute lehentasuna, baina hauetara bakarrik mugatu gabe:

FAMILIA TRANSMISIOA: euskarazko egoera eta jarduerak bultzatzea gurasoek beren seme-alabekin familian gozatu ahal izateko (familia ekintzak, euskarazko produktuen katalogoak, etab...)

AISIA ETA KIROLA: euskararen erabilera kalitatea bermatzea 18 urtera arteko haur eta gazteen aisia eta kirol eskaintzan, baita udalaren eskaintza zuzenean edota beste eragileen eskaintzan.

GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA, MOTIBAZIOA ETA AKTIBAZIOA: Eragile ezberdinekin koordinazioan lan egitea, euskara irakatsi eta egunerokotasunean erabiltzeko ohiturak indartzeko (euskalduntze kanpainak AFArekin, Berbalagun-Gurasolagun bezalako ekimenak AEKrekin, Euskaraldiaren moduko aktibazio ekimenak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin...)

ESTRATEGIAK:

2018-2022 ESEP Plan Estrategikoa behar bezala garatzeko, beharrezkoa izango da:

Aiarako Udaleko lan egiteko moduan zeharkakotasuna lantzea: euskararen plan estrategikoa gainerako zerbitzuei ere badagokie, euskararen zerbitzu propioaz gain (kultura, berdintasuna, inguru giroa...)

Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea eragile ezberdinekin (eskola, gurasoak, elkarteak...)

ESPARRUAK, NEURRIAK, EKINTZAK

ESEP ereduak dituen esparru (zifra bat) eta neurri (bi zifra) guztietatik, Aiarako inguru soziolinguistikoarentzat egokienak aukeratu dira 2018-2022 urteetan zehar garatzeko. Dagozkion ekintzen (hiru zifra) barruan, egun Aiaran gauzatzen diren ekintzak sailkatu dira:

1. Familia transmisioa

1.1. Modu jarrikorrean sustatzea sentsibilizazio eta motibazioa (Toki-erakundeak).

1.1.4. Gurasoei euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako produktuak ezagutarazi eta beraien jartzea

- Jaio berrien gurasoei haurrentzako euskal kantuen CDak oparitzea.

- 1-16 urte bitarteko kideak dituzten udalerriko etxeetara **EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA** bidaltzea.

1.1.6. Gurasoak kontzientziaztea euren ohitura linguistikoek seme-alabengan duten eraginaz.

- **GUTUN BAT** 1-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek gurasoei etxean euskara sustatzen laguntzeko proposamenekin (Euskarazko Produktuen Katalogoarekin bat)

1.3. Familian euskararen erabilera sustatzea (Toki-erakundeak)

1.3.1. Seme-alabek eskolan zein eskolaz kanpo euskara erabiltzeko guneak sortu eta bultzatzea.

- **IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN** programa

2. Irakaspenak

2.4. Euskararen erabilera soziala ikertu eta bultzatzea hezkuntzaren esparruan.

2.4.4. Euskara, irakaskuntzaz gain, harremanetarako hizkuntza moduan bultzatzea gainerako eskola jardueretan (bestelako ekintzak gauzatzeko programa zehatzen bidez)

- *GU ERE BERTSOTAN* programa udalerriko lehen hezkuntza eskolan.

3. Euskalduntzea- alfabetizatzea

3.8. Euskararen erabilera eta praktika landuko duten ekimenak sustatzea gelaz kanpo (Toki-erakundeak)

3.8.2. Elkarriketa erako ekintzak zabaltzea (Mintzalagun, Berbalagun)

- Udalerrian *BERBALAGUN- GURASOLAGUN* programa garatzea inguruko beste udalerriekin kordinazioan.

6. Esparru sozioekonomikoa

6.1. Euskara planen zabalkundearen laguntzen jarraitzea eta diru-laguntzen sistema hobetzea (Toki-erakundeak).

6.1.4. Enpresa txiki eta ertainetan euskara planak garatzeko aukerak eskaini eta zabaltzea.

- Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea udalerriko azoka eta merkataritza-hostalaritza sektorean, Arabako Foru Aldundiarekin eta Landa Garapenerako Zabaia Elkartearekin lankidetzan.

7. Aisia eta kirola

7.1. Euskararen presentzia eta erabilera indartzea aisialdiko jardueretan (Toki-erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak sustatzea, haurrei eta gazteei zuzendutakoak bereziki.

- *BERTSO-ABENTURA*, Arabako aterpetxe batean egonaldia, Aste Santuko oporretan Lehen Hezkuntzako 3- 4- 5 eta 6. Mailako ikasleentzat, Arabako Bertsozale Elkartearekin eta bailarako udal ezberdinekin lankidetzan.

- *EKAINEKO UDALEKUA* (Euskal Herriko kostako aterpetxe batean egonaldia, ekaineko azken asteko 4 egunetan, 6- 14 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat).

- *MULTIKIROL ETA ABENTURA* (Kultura): Udaleku irekiak 4- 13 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat, uztailearen 1etik 31 arte.

7.1.3. Adin guztietako pertsoneri zuzenduriko euskarazko ekintzak zuzentzea aisialdia modu zabalean ulertuta (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.)

7.3. Euskararen kalitatea zaintzea aisialdiko ekintzetan erabiliz (Toki-erakundeak)

7.3.1. Ume eta gazteei zuzendutako jardueretan erabiltzen den euskara kalitatezkoa dela bermatzea (jarduerari dagokionean eta artista/begiraleen euskararen ezagutza eta erabilerari dagokionean).

- *Formakuntza saioak antolatzea udaleku irekiak dinamizatuko dituzten begiraleentzat, AFAREN laguntzarekin, euskararen erabilera sustatzeko tekniken inguruan trebatzeko xedearekin.*

7.8. Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea kirol esparruko ekintzetan (Toki-erakundeak).

7.8.2. Herri eta hirietan kirol esparruan lan egiten duten elkarteekin lankidetzaren protokoloak sustatzea entrenatzaileen, begiraleen, irakasleen, prestatzaileen, arbitroen eta buruen hizkuntzalaritza formakuntzak antolatzeko xedearekin eta kirol jardueretan euskararen presentzia iraunkorra bermatzeko.

- *Bailarako denbora libreko eta kirol-begiraleentzako (eskola kirola, elkarteetako begiraleak) materialak eta formakuntzak, AFAREN laguntzarekin, besteen artean.*

7.8.6. Komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea kirol-eragileen eta hizkuntza-normalkuntzako eragileen artean, eskola kirolean eta federatuan bereziki.

- *AFA, Aiaraldeko Eskolen Foroa eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko koordinazioa bailarako kirol esparruan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko.*

9. Kultur Jarduera

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (Toki-erakundeak)

9.1.3. Haur eta gazteei zuzendutako produkzio kulturalak lehenestea

9.2. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko neurriak hartzea (Toki-erakundeak)

9.2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko proiektuak martxan jarri edo indartzea (sariak, lehiaketak?)

- Postal-ipuin-komikien Gabonetako Lehiaketa antolatzea Euskara Elkartearekin lankidetzan.

9.3. Produkzio kulturalen ibilbideak euskaraz antolatzea (Toki-erakundeak)

9.3.1. Arte eszenikoen esparruko eta ikus-entzunezkoen sektoreko ibilbideak indartu eta saritzea

- Laburbira eta Kultur Errota-n parte hartzea udalerriko Hogeitalau Euskara Elkartearekin koordinazioan eta egindako hitzarmenaren bitartez.

10. Publizitatea

10.2. Hedabideetan euskaraz argitaratzea administrazio publikoen publizitatea (Toki-erakundeak).

10.2.1. Edozein esparrutako erakundeen publizitatea ere euskaraz txertatzea, euskarazko zein gaztelaniazko hedabideetan.

11. Euskararen corpus eta kalitatearen antolakuntza

11.3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizialdu eta zabaltzea (Toki-erakundeak)

11.3.4. Paisaia linguistikoa zaintzea aholkularitza bideak zabalduz gune berrien izenak erabakitzerako orduan edota egungoak hobetzerakoan.

- Aholkularitza eskaintzea udalerriko toponimo ofizialen ezagutza izateko eta hauen erabilera egokirako: gauzaturiko galdeketaren emaitzak eta udalerriko aldizkarian gai honen inguruan argitaratutako edukiak, etab.

11.6. Euskararen kalitatea zaintzea (Toki-erakundeak)

11.6.3. Kartel eta errotuluetan erabilitako euskararen erabilera egokia bermatzeko baliabideak jartzea

- Udalerriko elkarten eta merkatari-hostalarien kartel eta testu publikoak zuzendu/itzultzeko doako zerbitzua, Euskara Zerbitzuaren bidez.

12. Hedabideak

12.5. Hedabideak ezagutarazi eta hauen hedapen sozial eta interesgarria bultzatzea

12.5.3. Hedabideen arteko lankidetzak ekimenak bultzatzea bideragarritasun eta eragin soziala sustatzeko.

- LAGUNTZA EKONOMIKORAKO HITZARMENA bailarako euskarazko AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOA hedabidearekin

13. Informazio eta komunikazio teknologiak

13.1. Tresna teknologikoen informazioa euskaraz bateratu eta zabaldu (Toki-erakundeak)

13.1.3. Komunikazio estrategiak garatu: hedapen kanpainak, gidak, etab.

14. Sensibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balore positibo eta modernoekin erlazionatzeko ekimenak garatzea (Toki-erakundeak)

14.1.7. Euskararen Nazioarteko Eguna elkarlanean antolatzea

- Euskararen aldeko udalerriko jaien antolakuntza koordinatua (euskararen elkarteak, eskola, euskalgintza kontseilua, udalerriko elkarteak, udalbatzak...) urrian EUSKARAREN ASTEBURUA, eta abenduan EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

- Udalerriko aktibazio kanpaina (EUSKARALDIA), Aiarako Euskalgintza Kontseiluekin eta bailarako gainerako udalekin lankidetzan.

14.4. Euskalduntzea-alfabetizatzea (Toki-erakundeak)

14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.

- Euskara ikastekoudal bekak.

- EUSKARA IKASTEKO KANPAINA: euskaltegirik ez duten udalerriri txikiengan ikasketa taldeak sortzeko deialdia, eta bailarako euskaltegiengan izena emateko kanpaina AFaren partaidetzarekin.

14.10. Hedabideak eta publizitatea (Toki-erakundeak)

14.10.1. Hedabideak euskarazko kultur, kirol eta aisialdiko ekintzen partaide eta hedatzaile bihurtu.

- Hedabideak (udalerrikoak eta bailarakoak bereziki, baina Arabakoak ere bai) euskarazko kultur, kirol eta aisialdiko ekintzen partaide eta hedatzaileak bihurtu: Saraube udal aldizkaria, Aiaraldea Hemen, Aiaraldea weba, bailarako irratia, Alea, Euskaraba...

15. Barne proiektzioa

15.2. Paisaia linguistikoa euskalduntzea inguru euskaldunenetan, hirietan eta leku jendetsuenetan (Toki-erakundeak)

15.2.1. Euskarazko komunikazioa bermatzea, ahoz zein idatziz, kirol eta kultura ekitaldi jendetsuetan.

- Euskarazko komunikazioa bermatzea, ahoz zein idatziz, Aiarako udalerriko kirol eta kultura ekitaldi jendetsuetan: San Isidro Azokan, San Prudentzio jaietan...".

8.- Adierazpena: Euskararen nazioarteko eguna (abenduak 3), Adierazpena: Euskararen nazioarteko eguna (Abenduaren 3a).- Ondoren Udalbatzari "2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENAREN" berri eman zaio; honako hau dio: Jarraian

"2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENAREN"

Euskarak jarrera aktibo eta eraginkorrean behar gaitu.

Egunero delako euskaraldia

Bizi. Prest

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz.

Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan.

Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu.

Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tartea gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoia prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.”

Udalbatzari jakinarazi zaio eta aho batez erabaki du 2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA onestea (ABENDUAREN 3A), transkribatu dena.

9.- Azaroaren 25erako adierazpen instituzionala “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.- Jarraian Udalbatzari jakinarazi zaio 2018ko azaroaren 20an egindako Gizarte-osasun, Berdintasun eta Immigrazioko Batzorde Informatiboaren bilkuran adierazpen instituzionala egiteko testu bat proposatu zela eta EH-BILDU udal taldearen aldetik zenbait ekarpen egin zirela aurkeztutako testuari gehitzeko. Berebat, guztia testu bakar batean biltzea erabaki zen eta datak aintzat hartuta, zinegotziei testu bategina bidaltzea, haiek onartu ostean, zegokion egunean argitara eman ahal izan zedin.

Hona hemen testu bategina:

AZAROAREN 25erako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartearen eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu **badagoela loturarik genero-arrazoiengatik bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean**, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Komunikabideek, publizitateak, telebistak, hezkuntza ereduak, emakumeen ordezkari ezak eta emakumea mendean duten generoko rol eta estereotipoei eusteak, sinismenek, praktikak eta jarrerak, besteak beste, bidegabea izateaz gain emakumeak gutxiagotasun batean uzten dituen gizarte-antolaketa hartzen dute parte, bizitza publikoko zein pribatuko alderdi guztiei eraginez. Indarkeria matxistak dituen adierazpide guztiak emakumeak menderatzeko eta genero patriarkalaren agindupean eusteko erabiltzen dituen gizarte-antolaketa ekonomikoa eta sinbolikoa.

Gure erantzukizuna da fokua emakume guztiek egunerokoan jasaten duten indarkeria matxistaren ekspresioetan jartzea, okerbidez indar txikiko deituak, sozialki onartuak eta guztiz normalizatuak daudenetan, beste biolentzia forma bortitzagoak legitimatu eta ahalbidetzen dituztenak. Musikak, publizitateak eta komunikabideek transmititzen duten biolentzia sinbolikoaz dihardugu, ahozkoa soilik ez den biolentzia psikologikoa, tratatu txarren, umiliazioaren, emakumeen bizitzaren eta gorputzen kontrolaren eta biolentzia ekonomikoaren bidez (ikusgarria da emakumeen soldata okerragoetan eta lan baldintza prekarioagoetan) jarduten duena.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek **egiarako eskubidea** dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzeko eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Aiarako Udaletik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu.

Honela, bada, Aiarako Kuadrilla Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako protokoloa eta plana garatzen ari da giza eskubideen ikuspegitik, emakumeen aurkako indarkeria haien eskubideen urratzea baita. Protokoloa zein Plana Istanbulerako Hitzarmenaren markora egokituko dira eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuko dituzte.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Horretarako, Aiarako Udaletik ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu, Aiarako Kuadrillaren emakumeenganako indarkeriaren aurkako protokoloan eta planean jasoko dena:

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzeko batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduz feministak eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.

- Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarritz.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboari laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorten publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.
- Foru Aldundia eta Emakunde bultzatzea emakume eta gizonen arteko aurrekontu-partidak handitzea, berdintasunezko zuzendaritzak eta epaitegi-tako genero unitateak modu jasangarrian indartzea eta indarreko legedia berrikusteko konpromezua hartzea.
- Neskata, gazte eta emakumeentzako bikote harremanetan eta sexu-afektiboetan, maitasun erromantikoa, sexualitate askeetan, autodefentsa feministan etab. ahalduntzeko jarduerekin jarraitzea.

Gainera, urtero bezala, urte honetan zehar erahilak izan diren emakumeak oroitu nahi ditugu:

- Florentina Jiménez, Gasteizen erahila.
- María José Bejarano, Florentinaren alaba, Gasteizen erahila.
- Roxana, Donibane Garazin erahila.
- Réjene, Bidarten erahila.
- Sophie Lösche, Asparrenan erahila.
- Natalia Bally, Uhartan erahila.
- Marguette Mbeugou, Bilbon erahila.
- Yolanda Jaén Gómez, Iruñan erahila.

Udaletik konpromezua erakutsi nahi dugu berdintasuna eta boroka feministarekin indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia delako, eta mugimendu feministak gure udalerrian eta Aiaraldean deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu.”

Hemeretziak eta hamabi minutu direnean, Susana Martín Benavides zinegotzi andrea batu da saiora.

Udalbatza jakitun da eta aho batez erabaki du traskribatu den **AZAROAREN 25erako ADIERAZPEN ISTITUZIONALA “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA”** onartzea.

10.- Zerbitzu teknikoaren irizpenak, Aiara/Ayalako udalerrian Hiri antolamenduaren plan orokorrari dagokionez.- Batzordeari Gobernu-taldearen proposamenaren berri eman zaio, Aiara HAPOn zenbait irizpen direla-eta, udal zerbitzu teknikoak egindako txostenarekin batean; hona hemen:

AIARAKO UDALEKO ZERBITZU TEKNIKOAK AIARAKO HAPO-RI EGINDAKO IRIZPENAK

LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN DAUDEN ERAIKINEN BANAKETA HORIZONTALA, SEKTOREKO ARAUDIAK ERAGITEN EZ DITUENAK

--Aurreiazko oharrak:

--**Gogoan hartuta biztanleria, gazteria bereziki, udalerrian egonkortzeko maila hobetzeko dagoen interesa, komeni da aztertzea etxebizitzaren dimentsio gutxienekoak zein lotura duen zaharberritze-jardueraren kostuarekin banaketa horizontalaren prozesuan.

Hitz-erraz adierazteko, gogoan harturik udalerrri honentzako hipoteka baten balioak ez lukeela 110.000 euroko zenbatekoa gainditu behar eta zaharberritze integralaren gutxieneko kostua 1.450 €/m² dela (honek besarkatzen ditu obraren kostua eta lotutako gainerako gastuak, hala nola teknikarien ordainsariak, eraikuntza-zerga eta tasak, BEZ izan ezik), 75 m²-ko etxebizitza eraikia du baliokide, zeinaren azalera erabilgarria 60 eta 65 m² inguru den.

--**Etxebizitza baten kostua aztertzen badugu, Babes Ofizialeko Erregimenekoa eta erabateko jabetzarekin tasatua, bi gela, trastelekua eta garaje itxi gabea dituen, balioa 95.000 € ingurukoa izango du. Erreferentzia esanguratsua da aurreko irizpena garrantzizkoa gerta dadin, izan ere etxebizitza-aukera eskainiko du landa ingurunean dagoen etxebizitza eskaintza urriaren aurrean eta biztanleria handiagoko inguruko herrietan dagoen etxebizitza-eskaintzarekin lehiatzeko aukera emango du; honen guztiaren ondorioz, landa inguruneak egun bizi duen jende-gabetze egoerari aurre egingo zaio.

--**Esan behar da Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabili eta Kudeatzeko Gidaplanak 60 m² erabilgarritan ezartzen duela gutxieneko azalera banaketa horizontala egiteko baserri tipologiako eraikinetan.

--** Lurzoru ez urbanizagarrian dauden txalet motako bizitegitarako eraikinen banaketa horizontalan, lizentziarekin eraikiak eta haziendaren ustiapenarekin lotu gabeetan, garrantzitsua da Arau Subsidiarioetan jasotako banaketa horizontalaren baimenari eustea.

Baimen honi eusteak aparteko garrantzia du etxejabeak bizi diren bitartean ondorengo asentamendua bideratzeko eta, gainera, erretiroa hartzeko adinetik gertu dauden edo jada gauditua duten eta epe laburrean laguntza behar izan dezaketen etxejabe horien zaintzan lagundu eta bermatzeko; hartara, bizitzaren azken fasean egoitza batera ez joatea baloratu ahal izango du.

--Banaketa horizontalan finkatu beharreko irizpideak:

1.- Banaketa horizontalaren prozesuan etxebizitzaren gutxieneko dimentsioa, baserri motako (katalogatuak eta ez katalogatuak) eta txalet motako (nekazaritza-abeltzaintzako ustiapenera lotua edo lotu gabea) bizitegitarako etxebizitzaren erabilera aldaketaren ondorioz.

-Gutxieneko azalera: 60 m² erabilgarri, gutxienez honako hauek izan behar dituenak: egoteko adinakoa den gela bat, jangela, sukaldea, logela bat eta bainugela oso bat, gutxienez komuna, konketa eta dutxa izango dituenak eta zeinaren diseinu-irizpideek babes publikoko araubideari meneratutako etxebizitzaren arautegia beteko duten.

-Eragotzi komunikazio-espazio komunak gaitzea, eskailera eta/edo igogailua izango dutenak, etxebizitza unitateetara sarbide komuna izatea bideratuko dutenak. Etxebizitza unitate bakoitzak solairuen arteko komunikazio bertikala bideratzeko eskailera izango du.

-Oinarrizko babesekoak diren eraikinetan baimenduko da bao gehiago irekitzea alboetako eta atzealdeko fatxadetan, ondare-zerbitzuaren aldeko txostenari lotuta, betiere.

-Garaje plaza bat izan behar du lursailean.

-Trastelekutarako 4 m²-ko gutxieneko azalera duen espazioa izatea, dela eraikin barruan dela eraikuntza osagarri batean.

-Erabilera pribaturako eraikuntzako espazio libre bat atxikitzea, gutxieneko 40 m²-ko azalerakoa

2.- Banaketa horizontalaren ondorioz etxebizitza kopuru gehienekoa:

-Baserri motako bizitegitarako eraikina: Lau (4) etxebizitza.

-Txalet motako bizitegitarako eraikina: bi (2) etxebizitza.

-Erabilera aldatetarako eraikinak: etxebizitza bat.

-Baserri motako eraikinen egungo eranskinak banaketa horizontalerako azalaren atal izan ahal izango dira.

B) HIRI LURZORUAN DAUDEN ERAIKINEN BANAKETA HORIZONTALA

1.- Aurreko azalpena aintzat hartuta, balekoa irizten zaio hiri-lurzorurako baliatzea jada existitzen diren eraikinen banaketa horizontalerako deskribaturiko irizpideak.

C) ERABILERA ALDAKETA, LURZORU EZ URBANIZAGARRIKO LANDA GUNEAN TRADIZIOZKO ERAIKUNTZA MOTAKO ERAIKINENA, 1950 BAINO LEHENAGOKOAK.

--Aurretizko oharrak:

--**Tradiziozko eraikuntzako eraikinei eustearren:

--Finkatu beharreko irizpideak:

1.- Bizitegitarako erabilera aldaketa onartzea tradiziozko tipologia duten eraikinetan, 1950 baino lehenagoko antzinatasunekoak, non gutxieneko azalera 60 m² erabilgarrikoa den. Azalera areagotzeko koefiziente bat ere ematea.

D) ZABALKUNTZA

-Jada existitzen diren eraikinetarako zabalkuntza koefiziente bat aintzatestea, ondoriozko azalera zenbagarria izan dadin banaketa horizontalean eskatutako gutxieneko neurrietarako, sektoreko araudiaren eraginpeko haiek salbuespen direla.

-Kontuan izan irisgarritasuna hobetzeko zaharberritzeko esku-hartzeetan, ez dadila eraikigarritasuna gehitu. (Nahiz auzo-komunitateei dagokien, komeni da aintzat izatea ekainaren 18ko 3/2005 Legearen 49. artikulua, Etxebizitzari buruzkoa-auzo-komunitateetan esku-hartzea, 2 zenbakia."... zaharberritzetarako esku-hartzeek, irisgarritasun baldintzen hobekuntza, instalazioen zentralizazio, iraunkortasun edo bizigaitasunerakoek, ez dute eraikigarritasuna areagotzen, ez eraikinen hirigintzako parametroak eta antolamendua aldarazten".)

2) LANABESETARAKO ETXOLAK LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN

--Aurretizko oharrak:

--Udalari egiten zaizkion kontsultetan lanabesetarako etxolak eraikitze baimena behin eta berri galdatzen zaionez gero, egoki irizten zaio lurzoru ez urbanizagarrian lanabesetarako etxolak eraikitze baimena ematea aztertzea.

--Finkatu beharreko irizpideak:

1.- Gehieneko neurriak, eraikitako 5 m² eta etxola itxura izatea; honela, bada, baldintzen artean zehaztu daiteke leihoaren neurria (horizontalen 60 cm x bertikalean 40 cm), 1,40 m-ko



karelean eta gehieneko hiru bao, fatxada bakoitzeko bat. Fatxadaren akabera, berriz, berezko kolorean utzitako egurrean egin dadila.

Aiara/Ayala, 2018ko azaroaren 15ean. Udal Zerbitzu Teknikoa.”

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, adieraziaz aztertu egin beharko dela sortzen den egoera, araudia bete behar delako eta ondarearen erregulazioa gorde, batak bestea bultzatzea eragin dezakeelako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ezargarria den araudi oro bete behar dela, jakina; gaineratu du proposamen hau HAPOa idatzi duen taldeari igorriko zaiola araudi ezargarriaren ikuspuntutik azter dezan eta jakinaraz diezazkigula ateratako ondorioak, HAPOren xedapenetan barne hartu ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean da eta aho batez erabaki du proposamen hauen berri HAPOren talde idazleari ematea, ezargarria zaion araudi ororen ikuspegitik aztertu eta egokia bada, onesteko aurkezten den HAPOren behin betiko agirian txertatzeko.

11.- Kontu ematea: Diru-kontaketa Akta, Gastu eta Sarrerren Balantzea, 2018ko uztaileko, abuztuko eta iraileko Kartilen egoera eta Kreditu Aldaketak.- Udalbatzari eguneko gai zerrendako puntu honi dagokion dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio eta deialdiarekin batera zinegotzietan bidali zaie.

Udalbatza jakitun da.

12.- Kreditu transferentziaren 1 zk. espedientea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazio zaio Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen bilkuran, 2018ko azaroaren 20koan, “Promociones y Pavimentaciones Balgorza SA” esleipendunak aurkeztutako “Luiando Udalerriko Padura Kalean hiri barneko mugikortasunerako hobetze-jarduerak” obrako laugarren ziurtagiri eta likidazioaren berri eman zela; 7.718,84 eurokoa, BEZ barne. Berebat, adierazi zen kontratuaren esleipenaren aldean obra gehiegikeria egonenez, beharrezkoa zen egungo espedientearen kreditu aldaketa tramitatzea, dagokion aurrekontu-atalean kreditua handituko duena, obra ordaindu ahal izateko.

Honako hau da kreditu-transferentzia proposamena:

”

KREDITU-TRANSFERENTZIA PROPOSAMENA

IKUSI DA kreditu-transferentzia espediente bat tramitatzeko beharra ikusi da “HIRI BARRUKO MUGIKORTASUN PROIEKTUA. PADURA KALEA”ren obrako 4. zk. eta azken ziurtagiriaren eta likidazioaren ordainketari aurre egiteko, Proiektuaren Teknikari Idazkariaren obra amaierako ziurtagiriaren arabera, aurreikusitako gabeko eta behar hainbat justifikatutako obra gehiegikeria egon da eta ordaindu egin behar da.

KONTUAN HARTUZ 342.609001 aurrekontuko kontu-sailean kreditu erabilgarria badagoela Arabako Foru Aldundiak obra hau gauzatzeko emandako diru-laguntzaren ondorioz, eta horrek Aiarako Udalak obra egiteko baliatu behar dituen baliabideen gutxitze bat dakar.

IKUSI DA ordainketa saihestezin hauei aurre egiteko beharra, eta ezin dietela 2019ko ekitaldiko aurrekontuari itxaron.

Udalbatzari ondorengo akordioa hartzea proposatu zaio:

1.) Kredituen transferentziaren 1 zk. espedientea onartzea, 2018ko ekitaldikoa, modu honetan:

A) Gutxitu beharreko Gastuen Egoeraren aplikazioa:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kreditu erabilgarria</u>	<u>Gutxituko den zenbatekoa</u>
342.609.001	HAINBAT INBERTSIO (OBRA TXIKIAK): LUIAONDOKO PISTA GORRIA EGOKITZEA	7.996,63 €	7.362,51 €
Kreditu minorazioa guztira 7.362,51 €			

B) Handitu beharreko Gastuen Egoeraren aplikazioa:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehitutako kreditua</u>	<u>Igoera</u>
134.601.008	PADURA KALEKO HIRI MUGIKORTASUNA HOBETZEKO JARDUERA LANA	157.041,99 €	7.362,51 €
Kreditu igoera guztira			7.362,51 €

2) Espediente honen ondorioz, Artekaritza sailaren bidez 2018ko aurrekontuetako Gastuen Egoeran aldaketak egitea, berehalako eragin-indarrarekin, behin onespren-erabakia hartua dela, hala badagokio, Udal honen 2018rako Aurrekontua Egikaritzeko Arauaren 13.7 artikulua agindutakoari jarraikiz, ”. *Udalbatzak onartu behar dituen Kreditu Transferentzien Espedienteen tramitazioan, horiek indarrean sartuko dira behin onespren erabakia hartu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango martxoaren 26ko 3/2004 Foru Araueko 15, 17 eta 18 artikuluetan eskatutako tramitazioa egitea (hau da, publikotasun baldintza eta Foru Aldundira bidaltzeko baldintza bete behar izan gabe)*”.

Udalbatza jakitun da eta aho batez erabaki du 1/2018 zk. kreditu transferentzia espedientea onartzea, transkribatutako akordio proposamenean planteatutako moduan.

13.- ALKATETZAKO DEKRETUEN KONTU-EMATEA: Jarraian Udalbatzari 2018/477 eta 2018/558 Alkatetza Dekretuen kontu-emango zaie, biak barne, eta haien xedearen laburpena hau da:

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/477.- MICF.- Obretarako Udal Lizentziaren emakida komuna erreformatzeko eta etxebizitza barnean zarpiatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/478.- N.F.S.- Obretarako Udal Lizentziaren emakida etxebizitzako komunak erreformatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/479.- Autobuses Cuadra, S.A.- Baimena Etxaurren Ikastolan 2018-2019 ikasturtean eskola-garraio zerbitzua emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/480.- T.E.I.- Obretarako Udal Lizentzia etxebizitzako ataria hormigonatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/481.- M.A.I.I.- Fidantzaren ordainketa eskaera etxebizitza birgaitzeko obrako eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/482.- M.I.C.F.- 1. pisuko sabaiko estrukturaren aldaketarako obra hasteko Udal Baimenaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/483.- EDP Comercializadora, S.A.U.- 3. hiruhileko jabetza publikoaren okupazio tasaren likidazioa. 2018

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/484.- MA.A.S.- Informazio publikorako sarrera espedientea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/485.- M.T.A.V.- Obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/486.- Etxaurren Ikastolako Ampa. Iraileko talde psikopedagogikoa eta bi urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/487.- Kontulariaren faktura zerrendaren onarpena F/2018/14.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/488.- Fundación Alday. Eguneko Egoitza kudeatzeagatik diru-laguntza ordainketa, iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/489.- S. Jose y Buenaventura.- Obren lizentzia eskuratzeko eskaerari uko egin dio, zehaztutako epean eskatutako dokumentuak aurkeztu ez dituelako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/490.- Goiener S.COOP.- 3. hiruileko jabetza publikoaren okupazio tasaren likidazioa. 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/491.- Kirolgest, SL.- Udalerrian kurtsoak eta tailerrak emateko zerbitzuaren kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/492.- Junta A. de Menagarai-Beotegi.- Menagaraien dagoen partzela egokitzeko eta altzari publikoak aldatzeko Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/493.- Udal aurrekontuko gastuen egoeran kredituak baimentzeko espedientea onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/494.- Aiarako kuadrilla.- Gastu generalak eta bestelakoek ekarpena onartzea, 2018ko 4. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/495.- Aiarako Kuadrilla.- Erabilitako olio jasotzeagatik ekarpena onartzea, 2018ko 4. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/496.- Aiarako Kuadrilla.- Hiri-hondakin solidoak kudeatzeagatik ekarpenaren onarpena, 2018ko 4. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/497.- Aiarako Kuadrilla.- Hirigintzaren kudeaketagatik ekarpena onartzea, 2018/08/31

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/498.- Luitaondoko pistan zoladura konpontzeko kontratu txikiaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/499.- Euskaltel, SA.- Obren lizentzia eskuratzeko eskaerari uko egin dio, zehaztutako epean eskatutako dokumentuak aurkeztu ez dituelako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/500.- 2018ko Udal aurrekontua Administrazio Batzorde bakoitzak duen partaidetza zehaztea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/501.- Menagarai-Beotegiko administrazio batzordea.- Saneamendu saretik euri-urak banatzeko obrarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/502.- Hermandad de Servicio Ibaizabal.- Hondakinen kudeaketagatik jarritako fidantzaren itzulera.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/503.- Menoioko Administrazio Batzordea .- Eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeagatik jarritako fidantzaren itzulera.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/504.- Respaldizako Administrazio Batzordea.- Arenaleko bidea konpontzeko obrarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/505.- F.A.O.- Etxegoien itxierako artapen eta mantentze obrak burutzeko obrerarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/506.- Costerako Administrazio Batzordea.- Ur biltegia duen Mendiko auzoko bidea hormigonatzeko obrarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/507.- Izoriako Administrazio Batzordea.- Aretxabalako zelaia egokitzeko obrerarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/508.- IR3245E kopiagailuaren hornidurarako kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/509.- R.V.M.- Zuazan kokatutako eraikineko sapaia aldatzeko eta pintatzeko obrarako Udal Lizentzia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/510.- F.J.A.O.- Eskatutako Bereizteko Lizentzia ez ematea. ALKATETZA DEKRETUA – 2018/511.- N.I.S.M.A.- Respaldiza kaleko paretak konpontzeko eta bidea hormigonatzeko obrerarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/512.- Apartamentos Turísticos Llanteno SD.- Bermea eskatzea eraikuntza eta eraiste-hondakinak kudeatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/513.- Apartamentos Turísticos Llanteno SC.- Llanteno lursailean urbanizazioari obraren udal-lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/514.- Viesgo Energia, SL.- 2018ko 3. hiruileko jabetza publikoaren okupazio tasaren likidazioa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/515.- 2018ko urriko nominen hileroko txostenaren onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/516.- Batzordekideei ekarpen ekonomikoa, 2018ko urria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/517.- Alderdi Politikoei ekarpen ekonomikoa, 2018ko urria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/518.- 2018ko soldata berrikuspena, ordainsariak igotzeko txostena igotzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/519.- AnekS3, SL.- Etxaurren Ikastolarako desfibrilatzailearen hornidurarako kontratu txikiaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/520.- Inycom Instrumentación y Componentes.- Ekipo informatikoaren hornidurarako kontratu txikiaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/521.- Elder Medio Ambiente. SLL.- Nekazaritzarako plastikoak jasotzeko zerbitzuaren kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/522.- L.Z.U.- Ibilgailuari baja emateagatik 2018an ordaindutakoaren zati proportzionalaren itzulketa, dagokion ibilgailuen zergatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/523.- JLPF.- Ibilgailuari behin betiko baja emateagatik IVTM 2018 ordainagiriaren zatiaren itzulketa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/524.- LZU.- Ibilgailuari behin betiko baja emateagatik IVTM 2018 ordainagiriaren zatiaren itzulketa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/525.- Olabazarren dagoen eraikinean gutxieneko segurtasun-obrak gauzatzeko espedientearen hasiera.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/526.- Iberdrola Distribución Eléctrica SAU.- Obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/527.- ATG eta JMA.- Obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ATG eta JMA.- Obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/529.- Gizarte Segurantza. Kotizazioetarako ekarpena, 2018ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/530.- DFA. PFEZ atxikipena, 2018ko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/531.- ATJ eta JMA.- Quejanako etxebizitzaren eraikuntzatik eratorritako hondakinen kudeaketagatik dagokion fidantza ordainketa eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/532.- LUS.- Eraikina sendotzeko obratik eratorritako eraikuntza eta eraisketa hondakinak kudeatzeagatik fidantzaren ordainketa eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/533.- Elkarkidetza Pentsioak. Fakturaren onarpena, 2018ko urria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/534.- Kontulariaren F/2018/15 zerrenden onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/535.- Aiaraldea Koop. Elkartea.. Diru-laguntza zuzenaren ordainketa 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/536.- Nafarroa Oinez Fundazioa.- Diru-laguntzaren emakida 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/537.- Herri Urrats.- Diru-laguntzaren emakida 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/538.- Ehige Gurasoen Elkartea.- Euskal Eskola Publikoaren Festarako diru-laguntzaren emakida 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/539.- Araba Euskaraz Elkartea.- “Araba Euskaraz 2018” antolatzeko diru-laguntzaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/540.- Administrazio Batzordeei diru-laguntza emateko 2018ko Oinarri-arauak eta deialdia onartzea, ordainsari teknikoetarako eta obrak egikaritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/541.- Euskara ikasteko kurtsoak finantzatzeko Oinarri Arauen eta 2018ko Deialdirako diru-laguntzaren onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/542.- Asociacion Himaya. Errefuxiatuei laguntza emateagatik 2018ko diru-laguntzaren ordainketa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/543.- Pilbacken SL.- Obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/544.- IBV.- Aiarako Udalaren Trikitixa Eskola-Escuela de Trikitixa kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/545.- PAIB.- Quejatan partzelak isteko obretarako Udal Lizentziaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/546.- JEZen 2018ko Zergapekoen Errolda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/547.- Amurrioko Jabetza Erregistroa.- 2018/11/9ko informe teknikoan adierazitakoa onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/548.- JEM.- Aparkatzeko Txartela berritzeko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/549.- Fundación Alday. Diru-laguntzaren ordainketa eguneko zentroa kudeatzeagatik, urria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/550.- JASJ.- Etxebizitza ingurua zolatzeko obretarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/551.- Pilbacken SL.- .- Industria-nabea eraisteko obraren lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/552.- Zabor bilketagatik tasen errolda onartzea, 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/553.- Musika eta dantza jarduerentzako diru-laguntzen emakida, 2018ko deialdia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/554.- JBC.- Beotegin dagoen partzelako murrua konpontzeko obretarako udal lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/555.-. SGG.- Etxebizitzako portxea isteko eta lanabesak gordetzeko txabola jartzeko obrarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/556.- Kontulariaren F/2018/16 zerrenden onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/557.- MAU.- Etxebizitzako fatxada pintatzeko obrarako Udal Lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/558.- Ibaizabal Gaztetxea gazte Elkartea.- Llanteno Eskolen eraikinean dagoen lokalean obrak egiteko Udal Lizentziaren emakida.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) hartu du hitza 2018/497 Alkatetza Dekretuagatik galdetzeko, Aiarako Kuadrillaren ekarpenaren zenbatekoa jakin nahi luke, 2018/08/31ko hirigintza kudeaketagatik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak(EAJ-PNV) zenbatekoa emango zaiola esan du.

Iraida Saenz de Lafuente andreak (AIARA-BATUZ) 2018/547 Alkatetza dekretuaren inguruan galdetu du.- Amurrioko Jabetza Erregistroa,. 2018/11/9ko txosten teknikoan zehaztutakoa onartzeak zer esan nahi du?

Erantzun zaio uste dela eraikuntza baten hirigintza-egoeraren txosten bati dagokiona dela, Jabetzaren Erregistroak eskatzen du jabetza bat obretarako udal lizentzia gabe erregistratzen denean.

Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) 2018/500 dekretuaren inguruan galdetu du.- 2018ko Udal Aurrekontuko Udalerriko Administrazio Junten partizipaziori buruzkoa den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EH-BILDU) erantzun du eman zitzaizen koadroan jartzen duela ze zenbateko dagokion Administrazio Junta bakoitzari jasotzea.

2018/541 Alkatetza Dekretuari dagokionez, euskara ikasteko kurtsoak diruz-laguntzeko 2018ko Oinarri eta Deialdiari buruzkoa, Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) esan du aukera hau erabili behar zela guztiz diruz-laguntzeko, familiek ordaindu behar ez izateko. Iritzi publikoak eta erakundeek noranzko honetan pausuak ematen ari direnez, arriskua hartu behar zen deialdi honetan.

Hitz-hartzeak amaitu dira, Udalbatza aipatutako Dekretuen jakitun da.

URGENTZIAZKO GAIA

14.- Bake Epaitegiko langileen Laguntzaren egun aldaketa. Jarraian, Alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, larrialdia dela eta, Eguneko Gaien Zerrendan ez zegoen akordio proposamena Udalbatzak aintzat hartzea:

AKORDIO PROPOSAMENA

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91,4 artikuluan jartzen duenarekin bat, Toki Administrazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, Eguneko Gai Zerrendan ez dagoen erabakia aurkezten zaio Udalbatzari iritzia emateko:

Gai hau Udalbatzari ahalik eta azkarren aurkezteko premia, udalbatzaren beste bilkura bat egitera itxaron gabe, Aiarako Kuadrillako Bake Auzitegiak eta Gizarte Ongizateko administrazio laguntzaileak lantoki bera batera erabiltzetik sortutako arazoa lehenbailehen bideratzeko beharrak eragin du, erabilera bien arteko bateragarritasuna lortzearen.

Honegatik guztiagatik, GOGOAN HARTUTA taldea osatzen duten bost udalerrien artean Bake Auzitegiak arreta emateko egunak finkatu zirenean, asteartea bereizi zela Aiara/Ayalako Udalean zerbitzu emateko eta asteazkena Okondoko Udalean zerbitzu emateko, eta

GOGOAN HARTUTA, asteartean batera egokitzen direla Udalean Aiarako Kuadrillako Bake Auzitegiko langileak eta Gizarte Ongizateko administrari laguntzailea, zeinek hasiera batean, lanerako espazio bat bera partekatzen duten eta horrek gizarte laguntzailea tokiz aldatzera behartzen duen, bere lana egoki betetzeko kaltea eragiten diola.

Udalbatzari ondorengo erabakia hartzea proposatu zaio:

1) Okondoko Udalarekin aldatzea Bake Auzitegiko langileen lan eguna; hartara, Okondon asteartean egingo dute lan eta Aiaran, berriz, asteazkenetan eta aipatutako antolamenduzko arazoa konponduko litzateke.

2) Erabaki honen berri eman Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari eta Okondoko Udalari, dagozkion ondorioetarako.

ALKATE-PRESIDENTEAK.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.- ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA".

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) Aztergai zerrendan jaso izana justifikatu du transkribatutako erabaki-proposamenean azaldutako arrazoiengatik.

Udalbatzak lehenik eta bat auziaren jatorriaz egin du eztabaida eta aho batez erabaki da udalbatza honetan sartzea aztertzeke.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) adierazi du arazo honek hiritarrak ondo artatzean ere eragina duela. Esan du Bake Auzitegiarekin eta Okondoko Udalarekin hitz egin duela adierazten du, eta Auzitegira bidaltzeko akordio hau hartu behar dela.

Udalbatza jakitun da eta aho batez erabaki du, bozketa arruntean.

1) Okondoko Udalarekin aldatzea Bake Auzitegiko langileen lan eguna; hartara, Okondon asteartean egingo dute lan eta Aiaran, berriz, asteazkenetan, aipatutako antolamenduzko arazoa konponduz.

2) Erabaki honen berri eman Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari eta Okondoko Udalari, dagozkion ondorioetarako.

15°.- GALDE-ESKEAK

- Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) Udalbatzari jakinarazi dio jakinarazpena oraindik jaso ez dugun arren, ebatzi duela jada Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburutzak Tramame y Remai-ren aurka izapidetutako zigor-espedientea; adierazi du 60.000,00 euro inguruko zehapena jarri zaiola eta Ingurumeneko Baimen Integrala kendu, materiala erretiratzeko ere eskatuz eta lurzoruaren kalitate-espedientea abiarazteko, egokia bada. Berebat, Murgako administrazio-batzarrari ere jakinarazi zaiola adierazi du.

Iraida Saenz de Lafuente andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du, hala bada, pozten dela.

- Iraida Saenz de Lafuente andreak (AIARA-BATUZ) eskatu du aurrerantzean eta harik eta hauteskundeak egin arte, Lehen Sektoreko Batzorde Informatiboarekin hilero bilerak egin daitezela, erabaki gabeko gai guztiak, ordenantza etab. konpontzen hastearren.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) adierazi du abeltzainekin bilera aurreratu zela Plan Sanitarioari begira. Datorren hilean abeltzain eta administrazio-batzarrekin bilera egingo da, adostasunak lortzen saiatu behar baita, erabaki hauek hala eskatzen dutelako.

- Iraida Saenz de Lafuente andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du kontratuak berrikusi behar direla, Kontratuen Lege berriari egokitzeko.
Alkate jaunak esan du gaurkotu direla batzu-batzuk, eta horretan dihardutela, baina baliabideak mugatuak direla.
Idazkari-Kontu-hartzaileak adierazi du oraindik horretarako denborarik hartu ez duen arren, kontratu guztiak berrikusi behar direla.
- Nerea Goti Valle andreak (EH-BILDU) adierazi du Batzordeak egiteko eguna aldatzea, ezinbesteko kasuetan ez bada, arazoa dela zinegotzi guztientzat bakoitzaren denboraren antolamenduari dagokionez eta eskatzen du, aldaketa egin behar denean, idazkari-kontu hartzailea Madrilera prestakuntza saiora joan zenekoa kasu, aurrerapen handiagoz abisa dakiela.
Idazkari-kontu hartzaileak erantzun du oso berandu jakin zutela prestakuntzaren lehen atala gainditu zutela, ez daki zehatz esaten galdetzeko dei egin ostean astelehenean edo asteartean izan zen, eta horregatik eman zutela abisu berandu.
Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) adierazi du berandu izan zutela bileraren berri, baina gogoan izan behar dela prestakuntza langileen eskubidea izateaz gainera, Udalbatzak aholkularitza hobe jasotzeko ere badela.
- Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) La Sierrari dagokionez uste du izugarri moteldu dela auzia eta kudeaketa planaren barruan ez dela inoiz mahai gainera eztabaidatzeko ekarri horren ardura duen pertsonaren egokitasuna; gaineratu du pertsona hori UGMak direla-eta araudi desegokiak babesten zuela eta horrek pentsaraz dezake pertsona horrek ez dezakeela egiteko hori bere gain hartu; ordea, denak isilik daude eta ez dakigu zergatik dagoen pertsona hori hor. Kudeaketa planak lehentasuna duela adierazi du, isunak jasotzen ari baita Udala eta ez daki zein kontrol-mota gauzatzen diren, praktika txarrak ohikoak baitira.

Iratxe Parro Uzquiano andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du Anaitasunak lana enpresa horri esleitu ziola, Aiarak besteari botoa eman zion arren.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jaunak (EAJ-PNV) adierazi du egiten ari diren kudeaketa-lanen txostena ekarriko duela eta kontuak emateko eskatuko dela.

Eta aztertzeke besterik ez dagoela, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman zuen arratsaldeko zazpiak eta hemeretzi minutu zirenean, eta aztertutakoa eta hartutako erabakiak erasota uzteko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita bederatzian.

O.E.
ALKATE-UDALBURUAK

IDAZKARIAK

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.